

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 16/2015 Foru dekretua, martxoaren 24koa, Ingurumen eta Hirigintza Sailaren prezio publikoak onartzen dituenak, 28/2013 Foru Dekretuak finkatutako 1/150.000 eskalako erliebe mapei izan ezik Hirigintza Zerbitzuak sortzen dituen beste agiri guztiei ezarri beharrekoak

Abenduaren 28ko 39/1988 Legeak, toki ogasunak arautzen dituenak, ezarritakoari jarraituz, apirilaren 13ko 8/1989 Legeak, tasa eta prezio publikoenak, beste baliabide bat eransten dio finantza ordenamenduari, prezio publikoa izenekoak.

Azaroaren 10eko 64/1989 Foru Arauak, tasa eta prezio publikoei buruzkoak, zeina azaroaren 23ko 33/1998 Foru Arauak aldatu baitzuen, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoa osatzen duten erakundeetako tasa eta prezio publikoen araubide juridikoa bildu du bere artikuluetan.

Diputatuen Kontseiluaren urtarrilaren 17ko 2/1995 Foru Dekretuaren bidez, Hirigintza Zerbitzuak sortzen dituen agiriari dagozkien prezio publikoak onartu ziren.

Azaroaren 20ko 64/1989 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko tasa eta prezio publikoak arautzen dituenak, bere 26. artikuluan xedatzen duenez, eta indarreko ekonomia itunaren 2. eta 34. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, Arabako Foru Aldundiari dagokio prezio publikoak ezartzea edo aldatzea.

Hirigintza Zerbitzuak txostena eman du 2015eko otsailaren 3an, foru zerbitzu horrek eta zerbitzuan bertan sorturiko agirien prezio publikoak eguneratu eta ezartzeari buruz, eta lehenengo aipatutako 26. artikuluko 2. puntuaren arabera ekonomia eta finantza memoria bat egin du, aldaketa proposamen honen prezio publikoen zenbatekoa justifikatzen duena.

Nola txostenak hala memoriak hainbat parametro hartu ditu kontuan indarrean dagoen 2/1995 Foru Dekretua aldatzeko, hala nola zenbat denbora igaro den prezio publiko horiek ezarri zirenetik, zer premia dagoen garbiketa egiteko zaharkituta gelditu diren agiriekin eta zer agiri eta euskarri berri sartu diren egun erabiltzen diren teknologia eta baliabiabide aurreratuagoei egokituagoak, betiere gogoan izanda oraingo ekonomiaren egoera; hortaz, ekonomiaren aldetik egoki irizten zaio 2/1995 Dekretua aldatzeari, Hirigintza Zerbitzuak sortzen dituen agirien prezio publikoen berariazko atalari dagokionez.

Bukatzeko, esan behar da prezio publiko horiek ordaintzetik salbuestea erabaki dela irakaskuntzan aritzen direlako aintzatespena daukaten erakunde guztiak, lehenago behar bezalako eskaera justifikatua egin eta ikastetxeko zuzendariak hura sinatu ondoren, eta berdin salbuestea erabaki da Arabako Foru Aldundiarentzat interesgarri jotzen diren lanen arduradunak, baldin eta erakunde horri lanaren ale bat entregatzen badiote, hura bukatutakoan.

Horregatik guztiagatik,

Egungo ekonomiaren errealitateari eta egungo teknologiei egokituago dauden prezio publikoak ezartzea eskatzen da; baita foru zerbitzu honetan 1995etik hona –urte horretan ezarri ziren egun indarrean dauden prezio publikoak– eskuratutako esperientziagatik sorturiko agirien garbiketa egitea ere.

Ondorioz, bidezkoa da aldatzea Diputatuen Kontseiluaren urtarrilaren 17ko 2/1995 Foru Dekretuaren, Arabako Foru Aldundiaren kartografia agiriak saltzeko prezio publikoak ezartzen

dituenaren, 3. artikuluko bigarren paragrafoa, salbu eta 1/150.000 erliebe mapari dagokion prezio publikoa, zeina 28/2013 Foru Dekretuaren bidez ezarri eta 2013ko abuztuaren 21eko ALHAOn argitaratu baitzen. Hortaz, honela geldituko da paragrafo hori:

Probintziako mapa eguneratua -150.000- (alea)	2,48 euro
Kartografia paperean marraztea -A4 tamaina- (alea)	0,83 euro
Kartografia paperean marraztea -A3 tamaina- (alea)	1,65 euro
Kartografia paperean marraztea -A2 tamaina- (alea)	3,31 euro
Kartografia paperean marraztea -A1 tamaina- (alea)	5,79 euro
Kartografia paperean marraztea -A0 tamaina- (alea)	8,26 euro
Ortoirudia argazki paperean -A4 tamaina- (alea)	1,65 euro
Ortoirudia argazki paperean -A3 tamaina- (alea)	3,31 euro
Ortoirudia argazki paperean -A2 tamaina- (alea)	6,61 euro
Ortoirudia argazki paperean -A1 tamaina- (alea)	11,57 euro
Ortoirudia argazki paperean -A0 tamaina- (alea)	16,53 euro
Fotograma argazki paperean -A4 tamaina- (alea)	3,31 euro
Fotograma argazki paperean -A3 tamaina- (alea)	5,79 euro
Fotokopia Z/B -A4 tamaina- (alea)	0,50 euro
Fotokopia Z/B -A3 tamaina- (alea)	0,99 euro
Kartografia edo ortoirudia formatu digitalean (orria 500 edo 5000ko eskalan)	2,48 euro
Fotograma formatu digitalean -bereizmen handia- (alea)	4,13 euro
Fotograma formatu digitalean -bereizmen txikia- (alea)	0,83 euro
Grabazioa CDan (alea)	0,83 euro
Grabazioa DVDan (alea)	1,24 euro
"Arabako landaguneen inbentarioa" liburua (alea)	14,42 euro

* Prezio horiei BEZa aplikatuko zaie

Hirigintza Zerbitzuak aurkeztutako txostena ikusirik,

Horregatik, Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

Lehena. Aldatzea Diputatuen Kontseiluaren urtarrilaren 17ko 2/1995 Foru Dekretuaren, Arabako Foru Aldundiaren kartografia agiriak saltzeko prezio publikoak ezartzen dituenaren, 3. artikuluko bigarren paragrafoa, salbu eta 1/150.000 erliebe mapari dagokion prezio publikoa, zeina 28/2013 Foru Dekretuaren bidez ezarri eta 2013ko abuztuaren 21eko ALHAOn argitaratu baitzen. Hortaz, honela geldituko da paragrafo hori:

Probintziako mapa eguneratua -150.000- (alea)	2,48 euro
Kartografia paperean marraztea -A4 tamaina- (alea)	0,83 euro
Kartografia paperean marraztea -A3 tamaina- (alea)	1,65 euro
Kartografia paperean marraztea -A2 tamaina- (alea)	3,31 euro
Kartografia paperean marraztea -A1 tamaina- (alea)	5,79 euro
Kartografia paperean marraztea -A0 tamaina- (alea)	8,26 euro
Ortoirudia argazki paperean -A4 tamaina- (alea)	1,65 euro
Ortoirudia argazki paperean -A3 tamaina- (alea)	3,31 euro
Ortoirudia argazki paperean -A2 tamaina- (alea)	6,61 euro
Ortoirudia argazki paperean -A1 tamaina- (alea)	11,57 euro
Ortoirudia argazki paperean -A0 tamaina- (alea)	16,53 euro
Fotograma argazki paperean -A4 tamaina- (alea)	3,31 euro
Fotograma argazki paperean -A3 tamaina- (alea)	5,79 euro
Fotokopia Z/B -A4 tamaina- (alea)	0,50 euro

Fotokopia Z/B –A3 tamaina– (alea)	0,99 euro
Kartografia edo ortoirdia formatu digitalean (orria 500 edo 5000ko eskalan)	2,48 euro
Fotograma formatu digitalean -bereizmen handia– (alea)	4,13 euro
Fotograma formatu digitalean -bereizmen txikia– (alea)	0,83 euro
Grabazioa CDan (alea)	0,83 euro
Grabazioa DVDan (alea)	1,24 euro
“Arabako landaguneen inbentarioa” liburua (alea)	14,42 euro

* Prezio horiei BEZa aplikatuko zaie

Bigarrena. Prezio publiko horiek ordaintzetik salbuestea erabaki da irakaskuntzan aritzen direlako aintzatespena daukaten erakunde guztiak, lehenago behar bezalako eskaera justifikatua egin eta ikastetxeko zuzendariak hura sinatu ondoren, eta berdin salbuestea erabaki da Arabako Foru Aldundiarentzat interesgarri jotzen diren lanen arduradunak, baldin eta erakunde horri lanaren ale bat entregatzen badiote, hura bukatutakoan.

Hirugarrena. Onartzen den egunean jarriko da indarrean foru dekretu hau, ALHAOn noiz argitaratzen den kontuan hartu gabe.

Gasteiz, 2015eko martxoaren 24a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
MARTA RUIZ CERRILLO